

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 105.000 euroko diru- laguntza emango dio CORMINI

Foru Gobernuak elbarritasunaren plataformarekin ekitaldi honetan egingo diren jarduerak arautzen dituen hitzarmena izenpetu du

Miércoles, 11 de abril de 2012

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Elbarritu Ordezkarien Batzordearekin (CORMIN) hitzarmena izenpetu du; hitzarmenak plataforma horrek urte honetan zehar egingo dituen jarduerak arautzen ditu eta haiengatik Foru Administrazioak 105.000 euroko diru-laguntza emango du.



Nafarroako Jauregiaren fatxada.

Zehazki, 17 elkartek eta Nafarroako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarten Federazioak batzen dituen erakunde horrek aholkularitzako ekintzak garatuko ditu (juridikoa eta orokorra, ezintasuna duten pertsonentzako baliabideen inguruan: lanekoa, osasunekoa, hezkuntzako, bekei buruzkoa...), prestakuntzakoak, ezintasuna aztertzeako ekintzak (Behatokia), autonomia sustatzeko eta mendekotasunaren prebentziorako, informaziokoa, ezintasuna ikusarazteko...

Zehazki, 2012ko proiekturako aurreikusitako helburuak honako hauek dira: ezintasuna duten pertsonen, beren familien eta sektoreko erakundeen (aholkularitza juridikoa eta orokorra) kontsulta eta eskaera zehatzei erantzutea; ezintasunari lotutako gaietan interesa duten pertsona nahiz erakunde orori informazioko eta aholkularitzako zerbitzu publikoa ematea; Nafarroan ezintasunaren sektorea ikusarazteko sustapena egitea, erakundeen presentzia eta partaidetza herritarren partaidetzako zenbait organotan koordinatuz; Foru Gobernuarekin eta Nafarroako Udallerri eta Kontzejuen Federazioarekin elkarlanean aritzea ezintasuna duten pertsonen lotutako guztiarekin; hirugarren sektoreko plataforma finkatzea; eta Erakundearen antolaketa-egituran sakontzea hura optimizatze aldera.

Aipatu behar da Nafarroako Gobernuak, Mendekotasunerako Nafarroako Agentziaren bitartez, ezintasuna duten pertsonentzat ia 8 milioi euro bideratzen duela okupazio-tailerretarako, erakundeak diruz laguntzeko eta ezintasuna duten erakundeekin hitzarmen finalistetarako.

Cormin

Cormin Nafarroan elbarritasunaren plataforma eran jarduten duen Foru Komunitateko erakunde bakarra da. Ezintasunak dituzten pertsonak, haien familiak eta erakunde nahiz elkarteak ordezkatzeko beren eskubideen aitortzean aurrera egiteko eta erabateko hiritartasuna lortzeko gizartean eskubide eta aukeren berdintasunean, hala jaso beren Estatutueta eta beren eguneroko jardutean eratu zenetik.

Gaur egun, Nafarroako Elbarritu Ordezkarien Batzordea 17 elkarten eta Nafarroako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarten Federazioak osatzen dute.

Zehazki, honako elkarte hauek dira: Nafarroako Hartutako Kalte Zerebrala (ADACEN), Nafarroako Esklerosi Anizkoitza (ADMNA), Corella, Lizarreria eta Tuterako pertsona ezinduak (ADISCO, AMIFE eta AMIMET), Fibromialgia, Neke Kronikoaren Sindromea eta Sentikortasun Kimiko Anizkoitzaren Sindromea (AFINA), Osasun Mentala (ANASAPS), Parkinson (ANAPAR), Arantza Bifidoa eta Hidrozefalia (ANPHEB), Erretina (APRN), Nafarroako Down-en Sindromea duten Pertsonak (ASDN), Nafarroako Pertsona Gorrak (ASORNA), Nafarroako Garun Perlesia (ASPACE), Eunate elkarte-Nafarroan entzuteko urritasuna duten pertsonen senide eta adiskideak, Nafarroako Espainiako Itsuen Erakunde Nazionala (ONCE), Ezindu Fisikoak (IBILI) eta Erronkariko Zentroko senideak (AVR)

Azkenik, Cormin-en barruan dago ere Nafarroako Adimen Urritasuna duten Pertsonen Aldeko Elkarten Federazioa (FEAPS), eta azken hau, era berean, honako kide hauek osatzen dute: Iruñeko "Monjardín" Zentroko Gurasoen Elkarteak, Tutelar Navarra Fundazioak, Lizarrako "Oncineda" Zentroko Gurasoen Elkarteak, Adimen Urritasuna duten Pertsonen aldeko Nafarroako Erakundeak, "Ciganda Ferrer" eta Atena fundazioek, Iberoko "Isterria" Hezkuntza Bereziko Zentroak, Tuterako "La Atalaya" zentroko Bidean Hezkuntza eta Lan Integrazioko elkarteek eta Andres Muñoz, Isterria eta Torre Monreal ikastetxeetako gurasoen elkarteek.